

# Munduaren Historia Ekonomikoa, Historiako/Geografiako gradua, 1. kurtsoa Lan metodoa

Irakasgaiaren programan ezarritako helburuak betetzeko bi bide proposatzen ditugu:

1. bidea- Eskoletara etortzen direnentzat.
2. bidea- Soilik azken buruko froga egin nahi dutenentzat.

## 1- ESKOLETARA ETORTZEN DIRENENTZAT

Kasu honetan, **etengabeko hausnarketan** oinarritutako metodologia bat erabiliko dugu, zeinaren helburua gaiari buruz dugun ezaguera berreraikitzea izango baita. Horrekin batera, lauhilabetekoaren amaieran, **azterketa** bat egin beharko du ikasleak.

Gure ezagueraren berreraikuntzak hainbat iturritatik edango du:

- Aurretik ditugun ezagueren gaineko hausnarketa.
- Gai bakoitzari dagozkion liburu-atal, artikulua edota irakasleak proposatuko dituen material teorikoen eztabaida, alde aurretik eskainiko zaizkionak ikasleari.
- Gai bakoitzari buruzko irakaslearen azalpenak, ikasleekiko hartu-eman horretan eskainiko direnak.
- Taula, grafiko, mapa eta testuen analisia; klaseko eztabaidak.
- Bibliografiaren kontsulta eta irakaslearekin elkarrizketak, harrera-orduetan.

**Ebaluaketak hiru zati** izango ditu, beraz:

1- Alde batetik, ikasleak **gelan eta etxean egingo duen berreraikuntza lan hori** ebaluatuko duena (10 puntutatik 4,5). Bloke honetan irakasleak honoko atal hauek baloratuko ditu: a) bertaratzea (gehienez 0,5 puntu), b) parte hartze aktiboa (2 puntu), c) egindako borondatezko ariketak, d) ikasturteko lana (2 puntu).

2- Bestetik, maiatzeko/ekaineko **azterketa** (10 puntutatik 5,5).

### 1- Ezagueraren berreraikuntza lana

#### a) Bertaratzea

Ikasleak, gehienez, **4 egunetan** egin dezake huts; 5 egunetik gora huts egiten duena 2. bidea dela medio ebaluatua izango da, automatikoki. Eskola guztietara etortzen denak kalifikazioaren %5a eskuratuko du, (%5 horren gaineko 10a alegia), eta hortik behera metatzen dituen falten arabera (gehienezko 4 huts egin arte).

Eskoletara garaiz etorri behar du ikasleak, eta, irakasleak kontrakoa adierazten ez duen bitartean, telefono mugikorrek eta gailu elektronikoak (ordenagailuak barne) itzalita eta gordeta egongo dira; arau hauen hausturak ikaslearen kaleratzea ekar dezake.

Taldeak (A eta B) unibertsitateak ezartzen ditu eta orekatuak dira ikasle kopuruari dagokionean, arrazoi pedagogikoengatik: taldez aldatu nahi duen 1. bideko ikasleak beste taldean lekua aldatu nahiko dion 1. bideko ikasle bat aurkitu beharko du, eta irakasleari adierazi beharko dio, idatziz, otsailaren 5erako; bestela ez da aldaketarik egingo.

#### b) Parte hartze aktiboa

Ikaslearen **inplikazioa neurtuko** du irakasleak. Hori modu ezberdinetan islatu daiteke: galderen edo iritzien bitartez, irakaslearen itaunei erantzunez, irakasleak noiz edo noiz klasean jar ditzakeen kontrolak eginez, proposatutako ariketetan edo eztabaidetan parte hartuz... Praktiketako orduetan neurtuko da alor hau, batik bat, baina baita teoriakoetan ere, ebaluazio jarraituaren parte gisa.

Gelako eta lanetako hizkuntza, bestalde, **euskara batua** izango da: horixe erabiliko da irakaslearengana zuzentzean, ikasleen arteko eztabaidetan eta talde txikian aritzean; gaztelaniaz aritu nahi duenak ez dauka inolako arazorik erdal adarrean matrikulatzeko. Euskara maila ebaluazio irizpideen artean sartuko da, zer esanik ez: helburuak ez dira erdietsiko eskuratutako konpetentziak hizkuntza-maila kaxkarrean adieraziko balira.

#### c) *Borondatezko ariketak*

Irakasleak, zenbaitetan, eta bideragarria ikusten badu, **idatziz emateko ariketak** proposa ditzake (normalean testu, taula, grafiko edo mapen iruzkinak), etxean egiteko; ariketa hauek egitea eta irakasleari ematea **borondatezkoa** izango da. Irakasleak lanen kalitatea eta haiengan suma daitekeen progresioa neurtuko ditu. Borondatezko ariketa hauen emaitzak, positiboak izanez gero, azterketaren notari gehituko zaizkio..

#### d) *Ikasturteko lana*

Lana **bakarka** egingo da, eta bibliografia zerrenda luzetik hartutako liburu batzuen irakurketan oinarritutako saiakera sintetiko batek osatuko du. Zenbat eta testu eta artikuluko gehiago erabili lan hori idazteko, orduan eta hobeto. Iturriei erreferentzia egin beharko zaie, ideiak azaltzeko orduan. Plagioak eta kopiaketak ez dira onartuko.

Lana lauhilabetekoan zehar entregatuko zaio irakasleari, 2015eko maiatzaren 1a baino lehenago, paperean, eskuz idatzia, eta letra onarekin; gehienez 4 foliotakoa izango da. Lana entregatu aurretik ikasleak haren kopia bat egin eta gorde beharko du. Hizkuntza-maila kontuan hartua izango da kalifikazioa ezartzeko orduan.

## 2- Azterketa

Lauhilabetekoaren amaieran ikasleak azterketa bat egin beharko du, **derrigorrez**. Azterketa ariketa praktikoez (iruzkinez) eta galdera teorikoez osatuta egongo da, eta ikaslearen ezagueren erabilgarritasunaren norainokoa neurtzea du helburu. Proposatuko diren ariketak klasean landutakoan antzekoak izango dira. Azterketa horretara aurkeztzen ez dena, ez-aurkeztutzat hartuko da. Azterketa 10 punturen gainean neurtuko da, baina gainontzeko lanarekin batuz bestekoa osatzeko 5,5en gainean ponderatuko da.

Hala, ikasle batek, esaterako, eskola guztietara etorrita (alor horretan 10 aterako luke, beraz), bere parte hartze aktiboari dagokion ebaluazio jarraituan 8,5 bat lortuko balu, lanetan 6 bat eta azterketan 5,5 bat, azken emaitza 7 (Oso Ongi) izango litzateke ( $[10 \times 5 / 100 = 0,5] + [8,5 \times 20 / 100 = 1,7] + [6 \times 20 / 100 = 1,2] + [6,5 \times 55 / 100 = 3,6] = 7$  (Oso Ongi)).

Edozelan ere, azterketan 10 gaineko 3 baino gutxiago ateraz gero ez da beste emaitzekin batuz bestekorik egingo, eta irakasgaia ez da gainditutzat joko.

## 2- SOILIK AZKEN BURUKO FROGA EGIN NAHI DUTENENTZAT

**Azterketa** egin beharko dute. Azterketa hori klasera etortzen direnei jarriko zaien berdina izango da, eta, beraz, bertan proposatuko diren ariketak klasean landutakoan antzekoak izango dira; baina **gainera, galdera gehigarri bat** erantzun beharko dute.

Lauhilabetekoaren hasieran ikasleak 1. bidea hautatu eta, ostean, dena delakoagatik, abandonatzen badu, lehenengo deialdiko azterketaren emaitzan %20ko portzentajea deskontatuko zaio, hots, azterketan 7 ateratzen badu 5eko kalifikazioa ipiniko zaio.

### Egutegi aurreikuspenak:

I/25-II/4: 0 gaia

II/8-II/18: 1. gaia

II/22-III/3: 2. gaia

III/7-III/21: 3. gaia

IV/4-IV/11: 4. gaia

IV/14-IV/25: 5. gaia

V/2-V/12: 6. gaia